

2023ko URTARRILAREN 5eko BILKURA BEREZIA

LEHEN DEIALDIA

Artzibarko udaletxean, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren bosteko hamabietan, Artzibarko Udala bildu zen bilkura berezia egiteko, legean agindu bezala, eta lehen deialdian.

MAHAIBURUA: Alkate-Udalburua CARLOS OROZ TORREA

BERTARATUAK: Zinegotzi hauek:

Maria Isabel Cañada Zorrilla
Juan Jose Echavarren Salvador
Francisco Javier Erro Ramirez
Garoa Gartziandia Agirrezabala
Carlos Iriarte Iraceburu
Javier Diez Huguet

Idazkaria: Mainer Muguiro Perez

Alkate-udalburuak bilkurari hasiera eman ondoren gai zerrendako gaietara ekin zaie, hona hemen:

Hala badagokio, Imizkotzen eta Gorraitzen larizio pinuaren, basa-pinuaren, pagoaren eta pikearen baso-aprobetxamenduaren esleipena onartzea.

Imizkozeko eta Gorraizko mendiaren aprobetxamendua enkante publiko bidez besterentzeko espedientea ikusi da. Mendi hori Artzibarko herri-lurretan dago, Pausaran inguruan, baso-lote 1 da, eta 5.261 m³-ko bolumena du larizio pinuz, basa-pinuz, pagoz eta pikeaz osatua dago, eta 105.220 euroko lizitazio-prezioa dauka, BEZik gabe.

Ikusirik honako proposamen ekonomikoak aurkeztu direla:

Lizitzailea	Proposamen ekonomikoa BEZ kanpo
IPAR FORESTAL, S.L	135.681,19
ARPANA FORMACIÓN FORESTAL, S.L.	138.153,80
LOSAN SOLID WOOD, S.A.	132.629,81
MADERAS JOSÉ SAIZ, S.L.	176.769,60

Kontratazio Mahaia 2022ko abenduaren 20an eratu zen, eta 2022ko abenduaren 20ko aktaren arabera, MADERAS JOSÉ SAIZ SLri (IFK: B39392501; helbidea: Pol.). Pas ibaia z/g, San Vicente de Toranzon, 39699 PK, Corvera de Toranzo, esleitzea proposatu zen, EHUN ETA HIRUROGEITA HAMASEI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOKO (176.769,60) prezioan, BEZ GABE, ekonomikoki eskaintzarik onuragarriena delako.

Ikusirik ez dela sesteorik egin.

Udalbatzak erabaki du aho batez:

LEHENENGOA.- Lizitazioa baliozkotzat jotzea eta MADERAS JOSÉ SAIZ, S.L. enpresari (IFK: B39392501; helbidea: Pol. Pas ibaia z/g, San Vicente de Toranzo, P.K. 39699 Corvera de Toranzo, Pausaran inguruan baso-lote bat besterentzea. 5.261 m³-ko bolumena du eta larizio pinuz, baso-pinuz, pagoz eta pikeaz osaturik dago, eta EHUN ETA HIRUROGEITA SEI MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA HIRUROGEI ZENTIMOTAN esleitu zaio, (176.769,60) BEZik gabe.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipendunari, eta errekerimendua egitea, jakinarazpena jaso eta 15 egun naturaleko epean, esleipen-prezioaren % 4ko behin betiko fidantza eratu izanaren frogagiria aurkez dezan, bai eta Nafarroako Gobernuak emandako zerga-betebeharrak ordainduta dituela eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintzak emandako langileen gizarte-segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria ere, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino 30 egun natural lehenago, gehienez ere. Horrela, dagokion kontratua administrazio-agirian formalizatuko da.

HIRUGARRENA.- Esleipendunak ez diren gainerako lizitzaileei ere jakinaraztea erabaki hau, jarritako fidantza itzultzearekin batera, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

LAUGARRENA.- Enkante honetarako onartutako Administrazio Klausula Berezien Agiriarekin batera, besterentzea Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuari jakinaraztea, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

BOSGARRENA.- Alkateari ahalmena ematea erabaki hau gauzatzeko beharrezko izapide guztiak egin ditzan.

Eta gai gehiagorik ez zegoenez alkateak bilkura bukatutzat eman zuen hamalauak eta hogeita hamar direlarik, eta nik akta egin dut eta bertan zeudenek sinatu dute eta nik, idazkaria naizen aldetik, ziurtatu dut.